



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

BERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2010eko iraila
35. zenbakia

INAUTERIEN JOAN-ETORRIA

Emanaldi-prozesuak eta formulak

Inauteria etenik ezagutzen ez duen aldaketan dago. Ez bere zentzuan bakarrik, baita bere formetan, edukietan eta osatzen duten ataletan ere.

Carnaval eta *Carnestolendas* terminoak aspaldiko testuetan agertzen dira. Garai hartako gizon eta emakumeentzat zuen esanahia, pentsa dezakegunez, ez zen gaur egun ezagutzen duguna. Beste edozeren gainetik, lasaikeria, zalaparta, jostaketa eta iskanbila... sasoia zen, ohikotik aldentzeko garaia. Hala eman digute behintzat aditzera hornitu gaituzten ahozko iturriek ospakizuna 1930eko hamarkadara arte, debeku erabakigarria, eta orain arteko azkena, gertatu aurretik, izan zenaz.



Asparrenako inauterietako taldea Ilarduian. E. X. Dueñas

Baina, zalantzarik gabe, festa girotze hori beste zer edo zer ere bada. Hainbat eta hainbat kulturaren historian izan duen erakarritasun horrek zentzu sinbolikoa baino gehiago, zentzu soziala bilatzera bultzatzen gaitu; begien bistakoa abstraktua baino gehiago. Horrek bestalde, ez dakar berekin hain gertu, edo urruti, dauden Gizarte Historia, Psikologia, Soziologia edo Antropologia bezalako eremuetan teoriak bilatzea.

Metodologiari eta ikerketarako ekintzen eremuari dagokionez, oraindik uzten duen tartea ezin da azken urteetan egin diren lanekin parekatu. Honek ospatzeko formula ezberdinei buruz eztabai-datzeko behin-behineko foro bat merezi du, eta beharrezko egiten du, joera berriekin batera tradiziozkoak, funtsean baino gehiago itxuran, direnak aztertuko dituen foro bat.

Mantendu diren ohiturak, berrikuntza nabarmenak eta hain nabarmenak ez direnak, parte-hartze jendetsuen aurrean jendarte txikiena, erritu zaharren pixkanakako aldaketa: galera, errekupeazioa, berreraikuntza, birsortzea edo sorrera. Era guzti-etako emanaldiek dituzten atalak kontuan hartu eta ugaritzen dituzten antzezteko formulak: pertsonen arteko erlaziozkoa; festa eta ekitaldien osaketazkoa; identitatearen indartzekoa, norberarena eta bertakoa babesteko; erkidegoa zerbitzatzekoa; turismoa erakartzekoa eta kanpora begirakoa.



Kokomarruek, Eibarren, etxez etxe Koko dantzak egiten. E. X. Dueñas

Nahiz eta inauteriei buruzko materiala ugaria den, tarteka ez dugu mahai baten inguruan eseri eta gai hau maiz inguratzen duten gorabeherei buruz hitz egiteko aukerarik izaten. Horrexegatik, Jardunaldi hauetan lehen aipatutako atal bakoitza, eta beste batzuk, jorratuko ditugu. Beste edozein konturen gainetik, helburua Antropologia eta Folkloretik abiatu eta kazetaritza eta ikuskizunen munduaren artean kokatuta dauden diziplinetan aukeratu dugun gaiari buruz egin diren ikerketek utzi dituzten hutsuneak betetzea izango da.

Emilio Xabier DUEÑAS

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udazkeneko kontzertua

2010eko urriaren 9an - 18,30tan - HM Txokoan

HERNANIKO DULTZAINEROAK

Hernaniko musika eskolako ikasle, ikasle ohi eta irakasleen taldea da. Eskola horrek 25 urte bete dituela eta, joan den apirilera kontzertu berezia prestatu zuten beste zenbait lagunekin, eta horixe da hemen aurkeztuko dutena: dultzaina, txistua, xirula, alboka, trikiti, akordeoi, biolin eta herri perkusioz osatutako nahaste-borraste bat. Batetik Nafarroako dultzaineroen errepertorioko doinuak eskainiko dituzte, hala nola txistularieneko obra ezagun zenbait, baina batez ere euskal herri dantzak musikatuko dituzte, hori izan baita taldekideen leku nagusia urte luzetan: plaza, eta batez ere dantzaren ingurua.

IÑAKI EGUREN (Aiete, 1973) Hernanin hasi zen txistua ikasten, aurrena Txobitorenkin eta segituan Juan Mari Beltranekin Hernaniko Musika Eskola berrituan. Dultzaina ikasketak ere berarekin burutu zituen, eta Donostiako Kontserbatorioan Goi Mailako txistu ikasketak Txomin Agirregomezkorta eta Kepa de Miguelekin. Dantzaren esparruan jardun izan da gehiena, 20 dantza eta txistu talde ezberdin baino gehiagorekin kolaborazioak izan dituelarik, bereziki Goizaldi dantza taldeko txistularitzan dozena bat urtez. Joan den hamabi urtean Hernani Musika Eskolako txistu eta dultzaina irakaslea da, Igeldon, Aieten eta Oiartzunen ere musika hezkuntzan jardun delarik.

HARITZ EZEIZA (Hernani, 1984) Juan Mari Beltranen ikasle izan da alboka eta txistuarekin, eta Iñaki Egurenena txistua eta dultzainarekin. Kaleko musikan eta dantza taldeetan luze jardundakoa, besteak beste Egiako Trebeska dantza taldean egin ditu hamabi urte. Astigarraga eta Oiartzunen alboka eta dultzaina eskolak ematen ditu eta, joan den urtetik, Hernani Musika Eskolan ere bai.

ANE ERREGE BELDA (Hernani, 1977) Manuel Yabenekin eta Maite Sanzekin hasi zen auspoa astintzen, ondoren Maribel Insaustirekin jarduteko Hernani Musika Eskolan. Goi Mailako akordeoi ikasketak burutu zituen Donostiako Kontserbatorioan Miguel Bikondoarekin, bertako akordeoi orkestran egindako lanaz gain aipatzekoa delarik Juan Marirekin Txanbela taldean aritua, besteak beste. Gaur hezkuntza orokorrean dihardu, musika irakasle gisa.

ANDER BARRENETXEAK (Hernani, 1977), Oialumeko semea izaki, etxean ezagutu zuen Axintxioren bateria, eta Paco Díazekin jardun zen berau ikasten. Tolosako Asier Gonzálezekin ikasi zuen dultzainarako tanborra jotzen, eta Hernani Musika Eskolan burutu txalaparta ikasketak. Etzakit eta Morau eta agotak taldeekin plazaz plaza urtetan ibili ondoren, gaur Juan Mari Beltranekin dihardu txalapartan.

JOSEBA ALDASORO (Hernani, 1978) Hernaniko txistulari taldeko atabalaria da, herrian igandero goizeko diana jotzen diharduen horietakoa. Hernaniko Musika Eskolan akordeoia ikasten hasi zen Maribel Insaustirekin, eta ondoren perkusio ikasketekin jarraitu, han bertan, Jesus Mari Garmendiarekin. Atabala jotzeaz gainera, kolaborazio ugari izan ditu, baterian eta perkusioan, talde askorekin.

MIRIAM FERNANDEZ ATXAERANDIO (Gasteiz) Hernaniko musika eskolako biolin irakaslea da joan den 17 urtetan. Plazaz plaza asko ibilia da Txanbela taldearekin eta, azken urteotan, Juan Mari Beltranekin; hainbat diskoren grabaketatan ere parte hartu du talde horiekin: Txanbelaren Arin-arinketan eta Beltranen Arditurri eta Orhiko Txoria, besteak beste.



AMAYA, CARLOS Y DANIEL

AMAYA HERNÁEZ MANGADO:

Bere musika heziketa eta zeharkako flauta ikasketak errioxar hiriburuan burutu zituen. 1996an herri musikara hurbildu zen eta geroztik hainbat talde ezberdinetan hartu du parte.



CARLOS PEREZ-ARADROS HERNANDEZ:

1994tik titiriteroa da, harri-kartoiaren artisaua eta musikaria. Haizezko soinu-tresna batzuekin saltsan aritzen da (*gaita, wistle, ahoko soinua*), baita perkusiozko beste batzuekin ere (*koilarak, zartagina*) eta abestu ere egiten du (*arratsaldeetan bakarrik*).



Amaya, Carlos eta Daniel COMPAÑÍA DEL SACO osatzen duten lau partaideetatik hiru dira. Talde horren ikuskizunek ipuinak, txotxongiloak, erromantzeak eta Santiago bidearekin lotutako koplak eta herri musika biltzen dituzte.

Oiartzunen eskainiko duten emankizuneko egitaraua Errioxako herri usadiotik hartutako koplaz, abestiz, erromantzez eta dantzez osatua izango da. Ebroko erriberatik abiatu eta Sierra de la Demanda delakora iritsiko den bidaiataularatuko dute, upategietatik transhumantzian jarraitzen diren bideetara doana, estilo kantutik erromantzera doana, gitarratik arrabitarara doana, poza zabaltzetik nor bere baitan gordetzera doana.



DANIEL LATORRE DÍAZ:

Musikaria eta lutierra, edo alderantziz, da 1997tik (*orduan egin zuen lehenengo arrabita*). Geroztik gaur arte, hainbat musika proiektutan hartu du parte, penintsulako herri musikarekin eta antzina-ko musikarekin lotuak zeuden proiektutan. Jarduera hau bere ofizioarekin uztartzen du, hau da, soinu-tresna herrikoi eta zaharren kopiarekin.



EGITARAUA

1. Ya se van los pastores
2. Coplas de rabel de Viniegra
3. Como matas de romero
4. El Ebro guarda silencio
5. Calle mayor de Logroño
6. Bailache
7. Ya se van los Quintos
8. Coplas de esquileo: la culebra
9. romances: El arriero
La loba parda
El quintado
10. Las ovejuelas
11. La carrasquilla
12. Jota -vals.
13. Vueltas de Najera

Udazkeneko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa: 18 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



HM BILDUMAKO SEIGARREN LIBURUA

HERRI MUSIKAREN 4. ETA 5. JARDUNALDIAK izeneko liburua argitaratu da *HM bildumaren* barruan. Laugarren jardunaldietan danbolinteroen iragana, oraina eta geroaz aritu ziren Alberto Jambrina, Mikel Aranburu eta Sabin Bikandi, besteak beste. Urtebete beranduago egin ziren jardunaldietan berriz panderoaren erabilera izan zen aztertutakoa. Lan horietan José Luis do Pico, Gabriel González Villalba, Xabier Leturia, Imanol Urkizu, Marcelo González eta Urko Arozena aritu ziren hitzaldi eta tailerretan.

Hitzaldi eta tailerrez gain erromeri eta festa giroa alaitzen musikari gehiago ere aritu ziren eta une haietako argazkien sorta batzuk ere sartu dira liburuan, musikariak eta dantzariak nola aritu ziren agertzen duten argazkiak.

Jardunaldi haiek prestatzeko Herri Musikaren Txokoak Euskal Herriko Txistularien Elkarte, Euskal Herriko Tikitixa Elkarte, Conservatorio de Música Tradicional e Folque de Lalín eta Oiartzungo Udala izan zituen bidelagun, liburua argitaratzen Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu du.



Dultzaineroak Oiartzungo festetan. Julio Abascal

DULTZAINEROEN TOPAKETA XANISTEBANETAN

Joan den abuztuko hasieran ospatu ziren Oiartzungo Xanistebanak. Festetako azken egunean, abuztuaren 6an hain zuzen, inguruko dultzaineroak bertan bildu ziren eguraldi onak lagundutako eguna bere soinu alaiekin girotzeko asmoz, eta, zergatik ez, ongi pasatzeko helburuarekin.

Dultzainero eta danbor-joleak kontatuta, hogeit hamar musikaririk goiti bildu ziren taldean. Asko lehenago ere Oiartzungo festetan jotzen aritutakoak ziren, baina bazen berrikeria ere, gurean urrituta zegoen dultzaineroen familia handitzen ari denaren seinale ote da? Hala delakoan gaude, ea hurrengo urtean ere denak entzuteko aukera dugun.

9. HERRI MUSIKA JARDUNALDIAK: INAUTERIEN JOAN-ETORRIA EGITARAUREN AURRERAPENA

2010-11-27, larunbata

10:00'etan, Hitzaldiak

- El Carnaval (re)convertido en Carnaval
- La regeneración de la vida en las formas de expresión poética del carnaval suletino
- El carnaval rural de Asparrena: Ilarduia-Egino-Andoin
- Koko-eskea eta koko-dantzak Eibarko aratusteetan
- El Carnaval tradicional riojano

15:30'etan, Mahaingurua

-Berreskuratzeko era ezberdinak

18:30'tan, Ikusentzunezkoen bistaratzeara

-Inauterien adibide ezberdinak

2010-11-28, igandea

10:00'etan, Tailerrak

-Lapurdikoko dantzak

13:00'etan, Lapurdiko dantzen kale-erakustaldia

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabetetan: bisitari kopurua: 545

Antolatutako taldeak: 23

Bisitari kopurua irailerarte: 27.298

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabetetan: 11.392

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

